

eremuak beka Art Omi-n

'Art Omi: Artists' EGONALDIRAKO DEIALDIA

Art Omi: Artists - Sponsorships 2025

Epearen amaiera: 2025ko urtarrilaren 31a

OMI International Arts Center

www.artomi.org

1405 County Route 22, Ghent

New York 12075

eremuak programak **nazioarteko egonaldi-deialdi bat** ireki du, OMI International Arts Center-rekin lankidetzan, Euskal Autonomia Erkidegokoan errolatuta dagoen edozein artista joan daiteke egonaldira, betiere aktiboki eta profesionalki lanean aritu bada azken hiru urteotan gutxienez. Deialdiaren helburua da arte bisualen testuinguruan lan egiten duten artisten nazioartekotzeari laguntzea. Egonaldia **2025ko ekainaren 19an**, hasi eta **uztailaren 14an** amaituko da. Art Omi-n, Ghent-en, New York iparraldeko landa-herri batean izango da.

ART OMI-RI BURUZ

Art Omi-k kontinente guztietako artistak gonbidatu ditu New York estatuko landagunean biltzera, esperimentatu, lankidetzan aritu eta ideiak partekatzeko. Askotariko arte-estilo eta -jardunbideetan diharduten artistak elkartuko ditu ekimenak. Lau astez, ekaina eta uztaila bitartean, sorkuntza-lanerako denboraz gain, partaideek kultura-harremana eta ebaluazio kritikoa izango dituzte akuilu.

eremuak-ek joan-etorriko gastuak ordaindu eta **500 €-ko bidaia-poltsa** (ordainketa faktura bidez egingo da, eta beharrezkoa da EIZn alta emanda egotea eta BEZa aitortzea) emango dio hautatutako artistari, baita onarriko osasun-asegurua ere. Estudio pribatua, partekatutako ostalua eta doako otorduak izango ditu artistak bekaren egonaldi osoan. Art Omi-k **500 dolarreko eskudirua** jarriko du artistaren esku, lan egiteko materialak erosteko.

"Bisitarien Programa" funtsezko osagaia da Art Omi-ko artisten esperientzian. Galeria-jabeak, zaintzaileak, kritikariak eta artistak gonbidatuta daude egoiliarrek ezagutzera eta haien lanari buruz hitz egitera. Tradizio horrekin konprometitu gaude, ikusmen-arteetako profesionalen artean komunitate lotuago sustatzeko bidea delakoan.

Ate Irekien jardunaldiarekin amaituko da egonaldia. Bertan, ehunka profesional, artezale, bizilagun eta lagun elkartuko dira egoiliarrek egindako lana ikusteko, galderak egingo dituzte eta artistekin harremanetan egongo dira.

HAUTAGARRITASUNA

- Euskal Autonomia Erkidegokoan bizi den edozein artista joan daiteke egonaldira (ezinbestekoa da errolda-agiria aurkeztea), betiere aktiboki eta profesionalki lanean aritu bada azken hiru urteotan gutxienez.
- Ekimenak diziplina hauek hartzen ditu: ikusmen-artearen, soinu-artearen, performancearen eta gizarte-jardunaren barruan sartzen diren jardunbide guztiak.
- Art Omik ez du onartuko gaur egun Arte Ederretako lizentzia- edo master-ikasketak egiten ari diren artisten eskaerarik. Nolanahi ere, artearen inguruko ez den bestelako master batean matrikulatuta egonik, gutxienez 3 urteko esperientzia profesionala duten doktoregoko ikasleen edo artista profesionalen eskaerak onartuko ditugu.
- **Oharra: EZ da nahitaezkoa arte-ikasketak eginda izatea: autodidakta diren artista profesionalen eskaerak onartzen ditugu.**
- Eskaerak, curriculum/CV eta biografia ingelesez aurkeztu behar dira.
- Aurreko edizioetan egonaldian egon diren pertsonak ez dute aurkezterik izango. Ahalik eta artista gehienek aukera izan dezaten Art Omi egonaldian parte hartzeko, egoiliarra izan direnei eskatzen zaie ez dezatela eskatu bigarren egonaldi bat. Eskertzekoa da Art Omin izan ez diren beste artista batzuei ekimen horren berri ematea.

ESKAERA EGITEKO PROZEDURA

Eskaera esteka honen bidez bidali behar da: <https://artomi.submittable.com/submit/8d903909-c683-4f83-90ac-f4bf36064436/eremuak-art-omi-2025>

> **Art Omi: Artists – Sponsorships 2025**

ADI EGON!! Artistek lauki bat markatu behar dute non esaten den eremuak beka Art Omin hautagarriak direla.

Eskaeraren honako dokumentu hauek eskatzen dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko erroldatze-ziurtagiria (pdf, .jpg, .jpeg). Dokumentu honen izenburuan

eskatzailearen lehen **abizena** agertuko da, eta, jarraian, **ponte-izena** eta **residencecertificate** hitza, **punturik, komarik edo tarterik sartu gabe**. Adibidez: **jonesmaryresidencecertificate.pdf**.

- Curriculum vitae (ezinbestekoa da helbide elektronikoko bat eta harremanetarako telefono bat adieraztea) pdf, doc. edo docx formatuan. Dokumentu honen izenburuan eskatzailearen lehen **abizena** eta **ponte-izena** eta **resume** hitza agertuko dira, punturik, komarik edo tarterik sartu gabe. Adibidea: **jonesmaryresume.pdf**
- Narrazio formako biografia laburra [gehienez 100 hitz].
- Artistaren adierazpena [gehienez 100 hitz].
- 8 irudi edo 3 bideo-laburpenetarako estekak, edo 5 irudi eta bideo 1. Bideo-laburpenek ez dute minutu 1 baino gehiago iraun behar.
- Aurkeztutako irudi edo bideo bakoitzaren deskribapen laburra.

OHARRAK

Eskaera asko jasotzen ditugunez, mesedez, ziurta ezazu zure eskabidea erabat osatu duzula. Ez ditugu kontuan hartuko osatu gabe dauden eskaerak. Tamalez, hautaketa egin aurretik ez dugu izango aukerarik eskatzaile guztiei euren eskaeraren egoeraren berri emateko.

EGUTEGIA

Art Omi Artists 2025 – Epea luzatuta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren artistentzat.

- **Azken eguna:** Art Omi 2025 programarako eskabideak onartuko dira **2025ko urtarrilaren 31ra arte (11:59 PM EST. Eastern Standard Time / Ekialdeko ordu estandarra)**
- Hautaketa-prozesuaren **emaitza 2025ko martxoaren hasieran** argitaratuko da, eremuak programaren web-orrian: eremuak.eus
- Egonaldia **2025ko ekainaren 19an hasi eta uztailaren 14an amaituko da.**

eremuak

www.eremuak.eus

‘Art Omi: Artists – Sponsors 2025’ ESKAERA BETETZEKO:

<https://artomi.submittable.com/submit/8d903909-c683-4f83-90ac-f4bf36064436/eremuak-art-omi-2025>